

## KONTENPLAZIO HANDIKO ESTASI BATEZ EGINDAKO KOPLAK

*Sartu nintzen, non ez jakin,  
jakin gaberik geldituz,  
zientzia oro gaindituz.*

1. Ez nekien non nintzen nik,  
baina han bainintzen agertu,  
jakin gabe non nintzenik,  
handia nuen ulertu;  
ez diot zer nuen zertu,  
jakin gaberik geldituz,  
*zientzia oro gaindituz.*

2. Zientzia gorena zen  
bake eta errukizkoa,  
bakardade handian zuzen  
eta artez ikasizkoa;  
gauza txit sekretuzkoa,  
esan ezinik geldituz,  
*zientzia oro gaindituz.*

## COPLAS HECHAS SOBRE UN ÉXTASIS DE HARTA CONTEMPLACIÓN

*Entréme donde no supe:  
y quedéme no sabiendo,  
toda ciencia trascendiendo.*

1. Yo no supe dónde estaba,  
pero, cuando allí me vi,  
sin saber dónde me estaba,  
grandes cosas entendí;  
no diré lo que sentí,  
que me quedé no sabiendo,  
toda ciencia trascendiendo.

2. De paz y de piedad  
era la ciencia perfecta,  
en profunda soledad  
entendida, vía recta;  
era cosa tan secreta,  
que me quedé balbuciendo,  
toda ciencia trascendiendo.

3. Hain nengoen sorgorturik,  
hain murgil, hartan bildua  
zorabioak harturik,  
sen gabe bainaiz hildua,  
arima argira hurbildua,  
ulertzen ez dela ulertzez  
*zientzia oro gainditzez.*

4. Zinez hara iristen dena  
bere izatean da akitzen;  
lehenagotik zekiena  
behekoa zaio iruditzen,  
haren jakintza hain da hazten,  
jakin gabe han geldituz,  
*zientzia oro gaindituz.*

5. Gorago igo ahala,  
gutxiago zen ulertzen,  
laino txit ilunak gaua  
baitzuen guztiz argitzen;  
jakin zekiena baitzen  
beti ezjakin gelditzen,  
*zientzia oro gainditzen.*

6. Jakite hau jakin gaberik  
hain ahal handikoa baita,  
ez dute mende hartzerik  
jakintsuek hala nahita;  
ez baita haien logika,  
ulertu gabe ulertzea,  
*zientzia oro gainditzea.*

3. Estaba tan embebido,  
tan absorto y ajenado,  
que se quedó mi sentido  
de todo sentir privado,  
y el espíritu dotado  
de un entender no entendiendo.  
toda ciencia trascendiendo.

4. El que allí llega de vero  
de sí mismo desfallece;  
cuanto sabía primero  
mucho bajo le parece,  
y Su ciencia tanto crece,  
que se queda no sabiendo,  
toda ciencia trascendiendo.

5. Cuanto más alto se sube,  
tanto menos se entendía,  
que es la tenebrosa nube  
que a la noche esclarecía:  
por eso quien la sabía  
queda siempre no sabiendo,  
toda ciencia trascendiendo.

6. Este saber no sabiendo  
es de tan alto poder,  
que los sabios arguyendo  
jamás le pueden vencer;  
que no llega su saber  
a no entender entendiendo,  
toda ciencia trascendiendo.

7. Eta hain goi-mailakoa izanik  
jakite goren hau, bada,  
ez baita ahalik ez zientziarik  
iritsi ahal denik hara;  
inor gailentzen baldin bada,  
jakin gaberik jakinez  
*beti joango gain eginez.*

8. Zientzia goren hau zer den,  
ezagutu nahi baduzu  
jainkozko esentziaren  
goi-sena dela jakizu;  
haren maite-lana duzu,  
ulertu gabe geldituz  
*zientzia oro gaindituz.*

*Itzultzailea: Luis Baraiazarra*

7. Y es de tan alta excelencia  
aqueste sumo saber,  
que no hay facultad ni ciencia  
que la puedan emprender;  
quien se supiere vencer  
con un no saber sabiendo,  
irá siempre trascendiendo.

8. Y, si lo queréis oír,  
consiste esta suma ciencia  
en un subido sentir  
de la divinal esencia;  
es obra de su clemencia  
hacer quedar no entendiendo,  
toda ciencia trascendiendo.

*San Juan de la Cruz*